



TOLOSAKO
UDALA

6. LAGUNTZA LERROA. LARRIALDI EGOERETAN EKINTZA HUMANITARIO ETA PUNTUALETARAKO PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK.

Dirulaguntza hauen helburua da beharra duten komunitateetan larrialdiko ekintza humanitarioak egiteko eman beharreko diru-laguntzak arautzea; gatazka belikoek edo katastrofe naturalek sortutako egoerak arintzeko izango dira laguntza humanitario edo larrialdietakoak, eta/edo oinarrizko beharrak edo beste edozein premia asetzeko (aurretik sumatu gabeko gertakari bat izateagatik).

NORK ESKA DEZAKE?

Nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko edozein elkarte, erakunde edo instituziok eskatu ahal izango ditu diru-laguntzak. Baldintza hauek bete behar dituzte:

- Tolosako udalerrian izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkariak.
- Eusko Jaurlaritzaren Elkarten erregistroan edo Tolosako izaera sozialeko elkarten erregistroan erregistratuta egongo dira.

Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren kooperazio proiektuek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Tolosan ordezkariak ez izan.

Erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakar bat onartuko da.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Larrialdi egoeretan ekintza humanitario eta puntualetarako egiteko eskabidea (VI. Eredua).
- Erakunde eskatzailearen estatutuak.
- Zinpeko aitortpena (V. Eredua).
- Entitate eskatzailearen datuak eta IFZaren kopia.
- Gizarte Segurantzza eta Ogasuneko betebeharrak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria (edo VI. Eredua).